

Arkatz lorea



Urko hirian bizi zen. Goizero-goizero, eskolarako bidean, mendian zebilela amets egiten zuen. Kale argiak ikusten zituenean, habiaz betetako zuhaitzak zirela imajinatzen zuen. Semaforoen ordean, berriz, haitzak ikusten zituen, eta haitzetan mota askotako zomorroak.

Espaloian zehar zebilela, mendi bidexketatik zebilela amets egiten zuen Urkok. Eta kaleren bat zeharkatzen zuenean, berriz, ur gardeneko ibai zabal eta emaritsua zeharkatzen ari zela imajinatzen zuen.

Ikasgelan ez zegoen animaliei eta landareei buruz Urkok adina zekienik: zumarrak eta makalak bereizten zekien; eta baita ardien eta mandoen oinatzak nolakoak ziren ere. Izan ere, Urkok asko maite zuen Natura.

1.- Non bizi zen Urko?

Gasteizen
Herri txiki batean
Hirian
Mendiko etxola batean

2.-Non egongo zen gustura Urko?

Eskolarako bidean
Mendian
Espaloian
Ikasgelan

3.-Zer imaginatzen zuen Urkok? Idatzi E egia bada eta G gezurra bada

- ☐ Mendian zehar bide estuetatik zebilela.
- ☐ Ur asko zuen ibai bat zeharkatzen zebilela.
- ☐ Semaforoak zomorro txikiak zirela.
- ☐ Arbelezko harrietan animalia txiki asko bizi zirela.

4.- Lotu gezen bidez:

Kale argiak	Ibai emaritsuak
semaforoak	Haitzak
espaloiak	bidexkak
kalea	zuhaitzak

5.- Osatu:

Urkok _____ maite zuen. Bazekien _____
eta _____ bereizten. Eta bazekien, halaber, nolakoak
ziren _____ en eta _____ en oinatzak.